2013/2014ko 2. lauhilekoa. Arkitekturaren Oinarrietako Graduko 2. maila (UPV/EHU)

Hirigintza II-ko azalpena (tailer bateratua + arruntaren hasiera)

Tailer bateratua Zarautzen (Gipuzkoa) garatuko da. Ikasleek, hirukoteka edo launaka, «16. Hegoalde» izeneko arearako Hiri Antolakuntzarako Plan Berezi bat proposatuko dute. Esandako hiri-area, ia 12.7 ha-ko azalerakoa, bizitegi-erabilerarako eta erabilera tertziariorako birkalifikatuko den industriagune bat da. Etxebizitza-erabilera eta erabilera tertziarioa nagusi edukiko dituen jarduera-eremuaren berrantolakuntza bat proposatuko da, hortaz, indarrean dagoen legedia kontuan hartuz (eraikigarritasuna, hirigintza-estandarrak, zor-eremuak, irisgarritasuna, etab).



Lurzoruaren mailatik gorako hirigintza-eraikigarritasuna edo eraikigarritasun irabazizkoa (ekipamendu publikoak alde batera utzita) Zarauzko Hiria Antolatzeko Plan Orokorrak ezarritakoa izango da, hots, 1,26 m^2(s)/m^2(l), horrela banaduta: etxebizitza-erabilerako 120.000 m^2(s) eta erabilera tertziarioko 40.000 m^2(s). Praktika bi fasetan garatuko da:

1.- Lekuaren hirigintza-azterketa: gaur egun dauden partzelak, egungo lurzoruaren klasifikazioa eta kalifikazioa, ingurune gertuko hiri-bilbeak, sistema orokorrak eta haien zor-eremuak, arearako HAPOk eskatutako erreserbak…

2.- Hiri Antolakuntzarako Plan Bereziaren aurrerapena: arearen mugaketa eta lurzoruaren kalifikazio xeherako proposamena (bide-komunikaziorako sistema, espazio libreen sistema, espazio partzelatuak…)

Bi faseak «Hirigintza II. Hiri izatea» irakasgaiko tailer arruntetako orduetan garatuko dira, baita tailer bateratukoaren 2. eguneko (2014ko otsailaren 26a) lehen 3 orduetan ere (azken 2 orduetan aurkezpen publikoak egingo dira).

Bi faseetako ematea batera egingo da, Hirigintza II-ko hurrengo eskola teorikoaren hasieran (martxoaren 3an), bai digitalki (CDan) bai paperean (din A-1 planoak, din A-4ra tolestuta).

Donostian, 2014ko urtarrilaren 27an

Bixente Taberna eta Unai Fernandez de Betoño